

aLeKa

TOLOSAKO UDAL ALDIZKARIA | 2023ko abendua

02-03

**EZAGUTU UDALBATZA
BERRIA**

*Conoce la nueva
corporación*

06

**AUZOEN MAHAIA
HERRI KOHESIORAKO**

*Trabajando la cohesión
entre barrios*

07


**GORDE 2024KO
EGUTEGI FISKALA**

*Guarda el calendario
fiscal de 2024*

08-09

**TOLOSARREK
AUKERATUTAKO
5 PROIEKTU**

*Resultado de los
Presupuestos participativos*



**ZER NOLAKO
ALDE ZAHARRA
IRUDIKATZEN
DUGU
ETORKIZUNEAN?**

**ALDE ZAHARRA
BIZIBERRITZEKO
PLAN INTEGRALA,
MARTXAN**




EZAGUTU UDALBATZA BERRIA

Conoce la nueva corporación municipal



Andu Martinez de Rituerto Arregi
Alkatea. Udaltzaingoa eta Kirol Saila.



Ander Figuerido Zubiria
Etebizitza, Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak.



Kristina Pelaez Errazkin
Idazkaritza, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa, Ondarea, Informatika, Gizarte Zerbitzuak eta Osasun Saila.



Aitor Agirresarobe Murgi. Jasangarritasuna, Ingurumena, Mugikortasuna, Trantsizio Energetikoa eta Landa Garapena. Turismo, Merkataritza eta Azokak. Gazteria eta Hezkuntza.



Goiuri Ezeiza Arandia
Kultura eta Berdintasan Saila



Estitxu Kortejarena Ugarte
Kontuhartzailetza eta Diruzaintza Saila. Garapen Ekonomiko eta Enplegu-Sustapen Azpisaila.



Josune Sanz Vidal
Giza Baliabideak. Komunitatea eta Gobernantza Saila.



Garbiñe Marzol Ormazabal
Erregistroa eta Informazioa, Herritarren Arreta Zerbitzua (UDATE). Euskara eta Euskaltegia.



Aitzol Gartzia Azurmendi
Festetako azpisaila.



Datozen lau urteotan udalbatza osatuko duten ordezkariak dira honakoak. Udal gobernuan EH Bildu udal taldeko bederatziz zinegotziak daude. EAJ/PNV-ko zazpi ordezkariak eta PSE/EE-ko batek osatzen dute udalbatza.



Xarles Iturbe Pasaban



Biotxa Agirre Ugalde



Leire Zubeldia Rezola



Xabier Balerdi Tolosa



Ainhoa Dominguez Landa



Patxi Amantegi Zubiria



Iker Uson Gonzalez



Joxe Mari Villanueva Telleria

El gobierno municipal está formado por nueve representantes de EH Bildu; la corporación se completa con siete ediles de EAJ/PNV y uno del PSE/EE.

ZER NOLAKO ALDE ZAHARRA IRUDIKATZEN DUGU ETORKIZUNEAN?

Un plan de futuro, para revitalizar la Parte Vieja

Planaren inguruko informazio gehiago.

Más información sobre el Plan.



Zertarako jarri da martxan plan hau?

¿Para qué se ha puesto en marcha?

Gune historikoaren egoera aztertu nahi da ikuspegi ezberdinetatik; gero hobetzeko ideiak eta proiektuak lehenetsiko dira, modu parte hartzailean. Prozesuan ateratako ondorioekin osatuko da hurrengo urteetarako bide orria. Bizitzeko, negozio bat izateko edo irekitzeko, edota gozatzeko gune atsegina bat lortzea da helburua.

Para analizar situación del centro histórico desde diferentes perspectivas; luego se ordenarán ideas y proyectos de mejora de forma participativa. Se completará una hoja de ruta para los próximos años con las conclusiones que se extraigan de este proceso. El objetivo es lograr que sea un espacio agradable para vivir, tener o abrir un negocio, o disfrutar.

Zergatik Alde Zaharrean?

¿Por qué en la Parte Vieja?

Bere bizigarritasunean moteltze zantzuak eman dira, eta bizilagunen artean ere hedatu da kezka hori. Gainera, etxebizitza bakoitzeko errenta baxuena, langabezia eta etorkin tasa handiena, bizilagunen eskura lurratzaleko aparkaleku kopuru txikiena eta etxebizitza huts gehien duen gunea da. Era berean, gure herriko bihotza da. Garrantzia handia du kultur, aisialdi, komertzio edota ostalaritzarako.

Existe preocupación, también entre sus vecinos/as, por su degradación. Además, es la zona de Tolosa con la renta más baja por vivienda, mayor tasa de paro e inmigración, menor número de aparcamientos en superficie para residentes y mayor número de viviendas vacías. Pero es el corazón de la actividad de nuestro pueblo. Tiene especial importancia para la vida cultural, comercial y hostelera de Tolosa.

Zer aztertuko da?

¿Qué se analizará?

- 1. Etxebizitzak eta eraikinak | Viviendas y edificios**
Ordenantzak, egoera, irisgarritasuna, etxe eta lokal hutsak...
- 2. Ondarea eta zerbitzuak | Patrimonio y servicios**
Eraikin historikoen erabilera, turismoa...
- 3. Elkarbizitza eta konektibitatea | Convivencia y conectividad**
Mugikortasuna, aparkalekuak, mantenua, zarata, aisialdia eta atsedena...
- 4. Erabilera aniztasuna | Diversidad de usos**
Merkataritza eta ostalaritza, ekipamenduak, guneen errotazioa...



Nola egingo da?

¿Cómo se hará?

Plan Integralak bost fase izango ditu, eta lehen biak egiteko kontratua egin du udalak, hiri-planifikazio prozesuetan aditua den Paisaje Transversal estudioarekin. Olot, Gijón edo Gasteizen, esaterako, antzeko proiektuak egin ditu enpresa honek. Ondorengo urratsak bizilagun, eragile eta merkatariekin batera egin nahi dira: elkarrizketa eta saio irekiak antolatuko dira, iritziak trukatu, ideiak partekatu eta eztabaidatu, eta lehentasunak finkatzeko.

El Plan Integral tendrá cinco fases y el ayuntamiento ha contratado al estudio Paisaje Transversal, experto en procesos de planificación urbana, para realizar las dos primeras. Ha llevado a cabo proyectos similares en Olot, Gijón o Vitoria. Los siguientes pasos se pretenden llevar a cabo de forma participativa con vecinos/as, agentes y comerciantes, organizando entrevistas y sesiones abiertas, para intercambiar opiniones, compartir y debatir ideas y fijar prioridades.

AUZO ORDEZKARIEN MAHAIA SORTU DU UDALAK, AUZOEN PARTE HARTZEA INDARTZEKO

Auzo elkarteekin eta auzotarrekin komunikazio zuzena hobetzea eta beren parte hartzea indartzea da Udalaren helburu estrategikoetako bat, izan ere, auzoak eta bertako bizilagunak biltzen dituzten elkarteak aktibo garrantzitsuak dira, Tolosa hobetzeko lan handia egiten baitute egunerokoan.

Urteak daramatza Tolosak gobernantza kooperatiboan sakontzen, izaera demokratiko deliberatiboa duten prozesuen bidez. Haurren Hiria edota Tolosako Herritarren Batzarra dira horren adibide. Orain, parte hartze eredu hori auzo eta auzotarrengana eramane nahi da. Horretarako, uztailean auzo elkarte guztiekin bilera orokor bat egin ostean, ikasturte berrian auzo elkarte bakoitzarekin bakarkako bilera-erronda hasi du Udalak, beharrak identifikatzeko lehen urrats gisa. Helburua da agintaldi honetan Herri Behatokia egikaritu eta Auzo Ordezkarien Mahaia sortzea.



Zer da Auzo Ordezkarien Mahaia?

¿Qué es la Mesa de Representantes Vecinales?

Herrian sortzen diren behar eta erroka berriak modu bateratuan identifikatu, bakoitzaren garrantzia maila aztertu, egin beharreko lanak lehenetsi, jarraipena egin edota ebaluatzeko auzo guztiek osatutako foro iraunkor bat izango da.

Se trata de un foro permanente formado por todos los barrios de Tolosa para identificar de forma conjunta las nuevas necesidades y retos que surgen en el municipio, analizar el nivel de importancia de cada uno, priorizar los trabajos a realizar, y realizar su seguimiento y evaluación.

Nolakoa izango da funtzionamendua eta parte hartzea?

¿Cómo será el funcionamiento y la participación?

Talde horretan auzo elkarte guztiek ordezkaritza izatea da asmoa, eta Udala aztertzen ari da elkaterik gabeko zonetako bizilagunen parte hartzea bermatzeko bidea.

La idea es que en este grupo estén representadas todas las asociaciones vecinales, y el Ayuntamiento está estudiando la vía para garantizar la participación de las y los vecinos de las zonas sin asociación.

Zer lortu nahi da Auzoen Mahaiarekin?

¿Cuál es el objetivo de la Mesa de Representantes Vecinales?

Auzo bakoitzak bere bizilekuaren inguruan ez ezik, herri osoko ikuspegia izan dezaten lortu nahi da, elkarri entzunez, dauden erroka guztiak lehenesteko eta modu kolaboratiboan lantzeko, komunitate izaera indartzeko.

El objetivo es que cada barrio tenga una visión no sólo de su lugar de residencia, sino de todo el pueblo, para priorizar y trabajar de forma colaborativa todos los retos existentes, para reforzar la sensación de pertenencia a la comunidad.

2024KO EGUTEGI FISKALA

> URTEAN BEHIN ORDAINTZEN DIREN ZERGAK

TRIBUTOS DE PERIODICIDAD ANUAL

Ibilgailuen zerga Impuesto sobre vehículos

Martxoak 1 - Apirilak 15
1 de marzo - 15 de abril

Ondasun higiezin zerga Impuesto sobre bienes inmuebles

Maiatzak 15 - Ekainak 30
15 de mayo - 30 de junio

Jarduera ekonomikoen zerga Impuesto sobre actividades económicas

Urriak 1 - Azaroak 10
1 de octubre - 10 de noviembre

Zaborren tasa Tasa de basuras

Ekainak 1 - Uztailak 7
1 de junio - 7 de julio

Ibilgailuen sarbide eta pasabideen tasa Tasa de entrada vehículos y vados

Ekainak 1 - Uztailak 7
1 de junio - 7 de julio

Kutxazain automatikoen tasa Tasa de cajero automático

Ekainak 1 - Uztailak 7
1 de junio - 7 de julio

Autotaxi Autotaxi

Ekainak 1 - Uztailak 7
1 de junio - 7 de julio

Baratzak Huertas

Urriak 1 - Azaroak 10
1 de octubre - 10 de noviembre

> HILEAN BEHIN ORDAINTZEN DIREN ZERGAK

TRIBUTOS DE PERIODICIDAD MENSUAL

Etxez etxeko laguntza Asistencia domiciliaria

Hurrengo hileko 20. eguna
Día 20 del mes siguiente

> HIRUHILEAN BEHIN ORDAINTZEN DIREN ZERGAK

TRIBUTOS DE PERIODICIDAD TRIMESTRAL

Azokak Ferias

Hiruhilabeteko 2. hilabeteko 15. egunetik 3. hilabeteko 15. egunera
Del día 15 del 2º mes del trimestre, al día 15 del 3º mes del trimestre

Terrazak Terrazas

Hiruhilabeteko 2. hilabeteko 15. egunetik 3. hilabeteko 15. egunera
Del día 15 del 2º mes del trimestre, al día 15 del 3º mes del trimestre

> SEI HILABETERO ORDAINTZEN DIREN ZERGAK

TRIBUTOS DE PERIODICIDAD SEMESTRAL

Belena patioa Patio Belena

Ekainak 1 - Uztailak 7 /
Urriak 1 - Azaroak 10
1 de junio - 7 de julio /
1 de octubre - 10 de noviembre

1.2. Ordaintzeko borondatezko epearen azken eguna edo ordainketa helbideratuta egiteko eguna baliogabea izanez gero, hurrengo egun balio duena luzatuko da. Aparteko gorabeherarik izanez gero, Alkateak borondatezko epealdian ordaintzeko epea luza dezake.

1.2. En el caso de que el último día del periodo voluntario o el día de cobro por domiciliación sea inhábil se trasladará dicha fecha al siguiente día hábil. Por circunstancias extraordinarias el Alcalde podrá ampliar el plazo de pago en periodo voluntario.

1.3. Ondorengo salbuespen eta hobarien eskaeren epeak honakoak dira:
1.3. Se establecen los plazos de solicitud de las siguientes exenciones y bonificaciones:

Ondasun higiezin zerga.
Familia ugariaren hobaria.
Impuesto Bienes Inmuebles.
Bonificación familias numerosas.

Hondakinen bilketaren tasa.
Hobariak.
Tasa de recogida de basuras.
Bonificaciones.

Ibilgailuen zerga.
Ibilgailu historikoen hobaria.
Motor elektrikoaren duten ibilgailuen hobaria.
Bonificación vehículos históricos.
Bonificación vehículos de motor eléctrico.

Ibilgailu hibridoaren hobaria.
Bonificación vehículos híbridos.

Urtarrilak 1- Otsailak 15 // 1 de enero - 15 de febrero

PARTE HARTZE BIDEZKO AURREKONTUAK

Tolosarrek 2024ko aurrekontuaren zati bat nora bideratu erabaki dute. Aurten, herritarren erabakimena handiagoa izan da, zuzenean hautatu ahal izan baitute zein proiektutara bideratu zehaztutako dirua. Aurrekontu hori ere handitu da, 500.000 eurora.

Este año los presupuestos participativos han contado con mayor presupuesto (medio millón) y la capacidad de decisión para la ciudadanía ha sido mayor, ya que han podido decidir directamente a qué proyectos destinar esa cantidad de dinero.




TOLOSA HOBETZEKO 392 PROPOSAMEN-ESKAERA EGIN DITUZTE HERRITARREK, IAZ BAINO 179 GEHIAGO



urreko urteetan udal gobernuari zegokion hamar bozkatuenen artean zein egin hautatzea; oraingoan herritarrei protagonismo gehiago eman nahi izan diegu. Irizpide ekonomiko eta teknikoak betetzen dituzten proiektuen artean egin da bozketa, zuzenean. ||

Azaldu du Andu Martinez de Rituerto alkateak.



17 proiektu pasa ziren bozketa fasera, eta 1.000 tolosar baino gehiagok parte hartu zuten, iaz baino 364 gehiagok. Herritarrek hautatutako bost proiektu egingo dira.

Pasaron a la fase de votación 17 proyectos en los que participaron más de 1.000 tolosarras, 364 más que el año pasado. Se desarrollarán 5 proyectos seleccionados por la ciudadanía.

BOTOAK ETA EMAITZAK

BOZKA GUZTIAK	1.142
BALIOZKO BOTOAK	1.037
ERROLDATU GABEAK	57
ERREPIKATUAK	23

Zkia. Nº.	Proposamena Proyectos	Bozka guztira Votos totales	Aurrekontua Presupuesto
12	Terraza publikoa zerkausian Terraza pública en Zerkausia	344	150.000 €
3	Tolosako haur eta nerabeei zuzendutako udaleku irekiak / Colonias abiertas dirigidas a niños/as y adolescentes de Tolosa	303	150.000 €
11	Haurrentzako ur parkeak Parques de agua para niñas/os	297	50.000 €
17	Merkataritza Plana auzoetan Plan de promoción del comercio en los barrios	295	30.000 €
9	Larramendin jolas eta ariketa fisikorako gunea Zona para juegos y ejercicio físico en Larramendi	256	110.000 €
		GUZTIRA	490.000 €

TOLOSAN BIZIKLETAREKIN MODU EGOKIAN IBILTZEKO ARAU ETA GOMENDIO BATZUK

Normas y recomendaciones para circular en bicicleta por Tolosa



1

NONDIK GURUTZATU ALDE ZAHARRA?

¿POR DÓNDE ATRAVESAR LA PARTE VIEJA?

- Gorriti Plazatik Triangulora, Kale Nagusitik.
- Alderantzizko noranzkoan, Agintari kaletik.
- Plaza Zaharra, Zerkausia kalea eta Trianguloa, gune partekatuak.

Tolosan indarrean dagoen Mugikortasun Plana dugu, baita 2013an onartutako Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulazio Ordenantza ere. Azken hau berritzea da udalaren helburua, baina bitarte horretarako bizikidetzaren egokirako arau eta gomendio batzuk prestatu ditu udalak.

2

ZEINTZUK DIRA HORTIK AURRERAKO BI BIDEAK?

LOS DOS CAMINOS DEL BIDEGORRI

- Mendebaldea: San Frantzisko - Araba Etorbidea - lurreamendi Pasealekua
- Ekialdea: Zumardi Txikia - Oria pasealekua - Berazubi Kalea - Paper Kalea

3

ZEINTZUK DIRA OINEZKOEKIN PARTEKATU BEHARREKO GUNEAK?

ZONAS DE CONVIVENCIA ENTRE PEATONES Y BICICLETAS

- Arramele zubia
- Kale Nagusia
- Agintari kalea
- Plaza Zaharra
- Zerkausia kalea
- Trianguloa
- Araba Etorbidea eta SAM zubia
- Nafarroako zubi ingurua
- Dama berdea
- Oria ibaiko pasealekua
- Tolosa CF plaza (Berazubi)
- Zezen Plaza - Lizardi poeta
- lurre pasealekua
- lurreamendi pasealekua
- Usabalgo zubia
- Pedro de Tolosa pasealekua
- Iruñea etorbidea

Oinezkoek dute lehentasuna eta behar denean bizikletatik jaitsi beharko da. Gehienezko abiadura: 5 km/orduko (oinezkoen abiadura).

Las y los peatones guardan preferencia en estas zonas. Velocidad máxima 5km/h.

4

OINEZKO GAINERAKO BIDEETAN ZER EGIN BEHAR DA?

RESTO DE CAMINOS PEATONALES

Espaloietan ezin da txirrin-duz edo patinetez ibili, jaitsi eta oinez joan behar da: Berazubi-lurreamendi pasealekua, Euskaldun Berria zubia, Rondilla kalea...

No se debe circular por las aceras en bicicleta o patinete.

5

ZEBRA BIDEETAN ZER EGIN BEHAR DA?

¿QUÉ HAY QUE HACER EN LOS PASOS DE CEBRA?

Ohiko zebra bideak oinez gurutzatu behar dira beti. Aldiz, txirrinduarentzako marraz dituzten zebra bideetan bizikletek lehentasuna izango dute.

Las bicicletas únicamente guardan preferencia en aquellos pasos de peatones que estén marcados con líneas para bicicletas.



AZKEN BERRIAK

Actualidad

AGUR SANTA KLARAKO MOJEI

Tolosak agur esan die Santa Klara komentuko mojei. Jende ugari gerturatu zen azaroaren hasieran ospatu zen agur ekitaldira. 400 urtez izan dira klaratarrak gure herrian, eta Tolosan beharra izan duen edonori laguntza eskaini diote mendeetan zehar. Sentimendu-eta ondare-balio handiko eraikina utzi dute. Udalak ahalegina egingo du balio historiko handia duen eraikin berezi hau herritarren erabilerarako berreskuratu dadin.

Tolosa ha brindado una calurosa despedida a las monjas del convento de Santa Clara. El acto de despedida que se celebró a principios de noviembre congregó a decenas de tolosarras. Las clarisas han permanecido en Tolosa más de 400 años, ofreciendo ayuda a cualquiera que la haya necesitado. Han dejado un edificio de gran valor sentimental y patrimonial, que el ayuntamiento tratará de recuperar para un uso lúdico-cultural y/o social.

AMAROTZ ETA TXARAMA ARTEKO BIDEGORRIA ARGIZTATZEN

Mugikortasun jasangarria udalaren zutabe estrategikoetako bat da. Hori horrela, hobekuntzak egiten ari da udala, mugikortasun hori modu seguruan egin dadin. Zentzu horretan, abian dira Amarotz eta Txarama arteko bidegorrian argiteria publikoa jartzeko obrak. Inguru horretako ikusgarritasuna eta segurtasuna hobetzea da lanen helburua.



La movilidad sostenible es uno de los ejes estratégicos del ayuntamiento. Se están realizando mejoras para que esta movilidad se haga de forma segura. En este sentido, ya están en marcha las obras para la instalación de alumbrado público en el bidegorri entre Amarotz y Txarama. El objetivo de los trabajos es mejorar la visibilidad y seguridad en la zona.

ABEGI BERRIA MARTXAN

Etterik ez duten pertsoneri eguneko eta gaueko arreta zerbitzu publikoa eskainiko du Abegik. Proiektu berria Peñascal kooperatibak kudeatuko du, udalaren Gizarte Zerbitzu eta Osasun Sailaren gidaritzapean. Hala ere, hau guztia ez litzateke posible izango 1986 urtetik hona Abegi elkarteko boluntario taldeak egindako lanagatik ez balitz. Agintari kaleko lokalean egokitzapen lanak bukatuta, 8 erabiltzailerentzako lekua izango du.



Además del servicio nocturno, a partir de ahora el nuevo Abegi también ofrecerá atención diurna. Se abre una nueva etapa para Abegi, que estará gestionado por Peñascal y dirigido por los Servicios Sociales del Ayuntamiento, en estrecha colaboración con el grupo de voluntarias y voluntarios que ha trabajado desde 1986, sin el cual este proyecto no sería realidad.

AGINTALDI PLANA, ESKURA



Udal gobernuak 2023-2027 agintaldirako dituen helburu eta asmoak aurkeztu ditu herritarren aurrean. 31 konpromiso jasotzen ditu dokumentuak, eta horietako bakoitzarekin herritarren eta eragileen parte hartzean sakontzeko, udal administrazioa modernizatzeko eta zerbitzu publikoak indartzeko, eta tolosarren bizi baldintzak duintzeko urratsak eman nahi ditu udal gobernuak. Udalaren webgunean eskuratu daiteke plana; ale fisikoak, berriz, Udaten.

El gobierno municipal ha presentado ante la ciudadanía sus objetivos para el mandato 2023-2027. El documento recoge 31 compromisos, con cada uno de los cuales el gobierno municipal pretende dar pasos para profundizar en la participación ciudadana, modernizar la administración municipal y reforzar los servicios públicos, así como mejorar las condiciones de vida de las y los tolosarras. El plan se puede obtener en la página web del Ayuntamiento, mientras que los ejemplares físicos lo harán en Udate.

TRIBUNA

Alderdien iritzia



eh
bildu

Zaintzaren inguruko erronkak erraldoiak dira: zaintza sistema birpentsatu eta eraldatu egin behar da.

Hori ez dugu berehalakoan eta Tolosatik bakarrik lortuko. Baina eredu aldaketa hori lortzen laguntzeko ahalik eta ekarpenik handiena egingo dugu. Urrats txiki eta xume bezain irmoak, guztion artean emanak.

Etxetik hasi beharrean gara: udala bera prestatuko dugu zaintza ikuspegi orokor, integral eta komunitariotik lantzeko.

Elkarlanerako espazioak sortuko ditugu, zaintza behar eta beharko dutenekin, baita zaintzaile senide, kontratudun, kontratugabe, sindikatu, mugimendu feminista, hirugarren sektore eta erakundeekin ere.

Nahi bat: entzuten ez diren ahotsak, ikusezin diren zaintzaileak, entzun eta ezagutzeko aukera izatea.

Eta bi eskaera: bata, aldaketa horretan guztiok parte hartzea, denoi egokituiko zaigu-eta zainduak edota zaintzaile izatea, eta denok behar dugulako bidezko zaintza sistema bat; eta bestea, bereziki, gizonei zuzendua: hitz potoloak alde batera utzita, erabili eskuak, gorputza, denbora, eta zergatik ez, baita bihotzak ere, zaintzaren zama emakumeon bizkarretik kentzeko eta zuena ere baden ardura hartzeko.



ej
pnv

Tolosarrekin, tolosarrentzat

Dagoeneko legealdi berri honen lehen hilabeteak igaro diren honetan, herriak jarri gaituen lekutik, era eraikitzailean lan egiteko konpromisoa berretsi nahi dugu, tolosarren beharrei erantzun asmoz, Tolosa hobetzeko proposamen zehatzak egiten saiatuz.

Ate-joka ditugun erronkak ez baitira nolanhikoak: erronka demografikoa, digitalizazioaren azkartzea eta krisi klimatikoa, besteak beste. Gure txikitasunetik, Tolosak aurrera egiten jarraitu behar du, apustu berriak gauzatzen, babes sozialaren eta zaintzen arloan, hiri-ekonomiaren garapenean, etxebizitza politketan, trantsizio energetikoan, euskararen sendotzean, etorkizunean ere tolosar guztion ongizatea bermatu ahal izan dezagun.

Los desafíos que afrontamos como sociedad son complejos: reto demográfico, aceleración de la digitalización y crisis climática, por mencionar algunos. Mantenemos firme nuestro compromiso de seguir trabajando en favor de Tolosa con todos los y las tolosarras.

Lo que somos hoy, es el resultado de las decisiones que tomamos en el pasado. Las decisiones que tomemos (o no) a partir de ahora, también marcarán lo que seremos mañana.



PSE-EE
PSOE

2023ko ekainean udalbatza berria osatu zen. Gure herriaren nahia EH Bilduk gure herriaren gobernuan erabateko erantzukizuna izatea izan zen. EH Bilduri arrakasta handiena opa diot bere kudeaketan.

Nire alderdiaren ardura, tolosar guztientzat onak diren proiektu guztiak aurrera ateratzeko elkarlanean aritza izango da. Oposizioan egonda, gobernuaren kudeaketa kontrolatzea eta, egokituz jotzen ez ditugun egoeretan, kritikoa izatea ere.

El nuevo gobierno acertará en su gestión si es capaz de hacer frente al problema más grave que tiene Tolosa como es la falta de vivienda y sus consecuencias: precios altísimos para acceder a la misma en alquiler o en compra. Solo nos queda San Esteban. En su desarrollo nos jugamos la calidad de vida de cientos de familias tolosarras. San Esteban debe de ser transformado en su totalidad. El envejecido ferrial sustituirlo por vivienda pública. Reubicar Bonberenea. Crear equipamientos sociales y una nueva instalación deportiva de calidad...

AGENDA

Agenda osoa ikusgai: agenda.tolosa.eus

3 URTARRILAK
Fantasía. Eñaut Elorrieta
(Musika)
Leidor

4 URTARRILAK
Bagoiaz! Barrexerka
(Gazte-antzerkia)
Topic

13 URTARRILAK
Goazen
(Musikala)
Leidor

20 URTARRILAK
ATARIA BERTSO-JAIALDIA
(Bertsolariak)
Leidor

26 URTARRILAK
Kortxoaren Dilema
(Tartean. Antzerkia)
Leidor

27 URTARRILAK
Loti Ederra
(Glu-glu. Haur Antzerkia)
Leidor

16 OTSAILAK
Tributo a Queen
(Musika)
Leidor

24 OTSAILAK
Joserra Senperenea / Maite Arruabarrena
(Musika), Topic

Sarrerak:
Leidorreko leihatilan
— www.tolosa.eus/kultura
— tickets.kutxabank.es

Editorea: Tolosako Udala
Diseinu eta maketazioa: Dosges
Inprimaketa: Gráficas Ibarra
D.L.: SS-340/06

Kontsultatu
Alearen edukia
zeinu hizkuntzan:

Consulta el contenido
de Aleka en
lenguaje de signos:

HEMEN! >



EROSKETAK, KOMERTZIO TXIKIAN



Gabonetan ere
babeatu
Tolosako
saltokiak

